

Zaporea, pertzepzioa, lengoaia eta metabolismoa dira Brainy Tongue ekimeneko eztabaidaren ardatzak

2016/11/02

Brainy Tonguek antolatutako lehenengo jarduera da; Brainy Tongue Mugaritzek, Erregulazio Genomikoaren Zentroak (CRG) eta Basque Culinary Centerrek sustatutako zientzialarien eta sukaldarien arteko ekimen bat da eta pertzepzioaren eta sentsorialitatearen oinarri diren misterioetan sakontzea du helburu

Informazio sentsoriala garunera egiten duen bidaia zein den jakitea; biziraupenean daukan funtsezko roletik haratago, zaporeak imajinatzeko aukera ematen digula; itxurak eta plater bat deskribatzen duten hitzek gure pertzepzioa modulatzeko dutela; asetasunak ez duela gehiago jateko desioa eragozten, beste zapore batekin lotuta baldin badago... Horiek dira «The sensory Logic of Gastronomic Brain» sinposiumean ateratako ondorioetako batzuk. Sinposiumak maila goreneko hogeitak zientzialari eta sukaldari elkartu ditu, urriaren 24tik 26ra, Basque Culinary Centerren (Donostia).

[Gehiago irakurri](#)

